



ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN DOKUMENTUA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei (aurrerantzean, HAPO) nahitaez egin behar zaie dagokion ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura, arau hauek xedatutakoaren arabera: 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioarenak, 6. artikuluan; 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duenak, 41. artikuluan eta I.A) eranskinean; eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 4koak, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, 4. artikuluan.

Ildo horretan, Zestoako Udalak martxan jarri du HAPOa izapidetzeko prozesua. Hortaz, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18. artikulua aplikatuz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ingurumen ebaluazio estrategikoa abian jar dadila eskatu zuen Udalak 2019ko urtarrilaren 24an bidalitako idazki baten bidez, eta horrekin batera bidali zituen ingurumen ebaluazioa egiteko hasierako agiri estrategikoa, informazio memoria, eta HAPOko irizpideen, helburuen eta antolamendu hautabide partzialen dokumentua.

Ildo beretik, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 10. artikuluan xedatutakoa betez, planak eta programak prestatzean ingurumen alderdiak integratzeko, irismen dokumentua prestatu behar du ingurumen organoak, ingurumen azterketa estrategikoak zenbaterainoko hedadura, xehetasun maila eta zehaztasun maila izan behar duen mugatzeko, ukitutako administrazioei eta interesdunei kontsulta egin ondoren.

Horregatik, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 44. artikulua betez, eta ekainaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritz, Zestoako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Irismen Dokumentu hau egin du Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek, eta berau izango da, halaber, 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan jasotako Erreferentziatzko Dokumentua.

1.- ZESTOAKO HAPO-KO PROPOSAMEN NAGUSIAK

Zestoako Udalak ingurumen ebaluazio estrategikoa abiarazteko bidalitako dokumentazioak barnean hartzen ditu informazio memoria; irizpide, helburu eta hautabide partzialen dokumentua; eta hasierako agiri estrategikoa. Azken horretan, gainera, eskabidearen inprimakia ere jaso da (urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskina).

Irizpide, helburu eta hautabideen dokumentuak, lehenik eta behin, zerrenda batean biltzen ditu HAPOaren irizpideak eta helburuak. Haien artean badira helburu orokorrak, baina, horrez gain, helburu berezi batzuk ezartzen dira alderdi hauetan: hiriko egitura, morfologia eta tipologia; ingurune naturala; gunee libreak; ekipamenduak eta azpiegiturak; bideko komunikazioak eta garraioa; bestelako mugikortasuna; etxebizitza; jarduera ekonomikoak; arkitektura eta arkeologia ondarea; garapena eta kudeaketa; hiriguneak, eta abar.

Ondoren, eremu bakoitzaren garapen edo funtzio aukerez jabetzeko modua ematen duten zenbait hautabide partzial garatzen dira, eremuz eremu. Hautabide horietako batzuetan, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan egin baina oraindik garatu ez diren



proposamenak jaso dira, baita Arau Subsidiarioen 2006ko aurrerapeneko zenbait ere. Badira, halaber, orain arte herritarrek parte hartzeko egin den prozesutik sortutakoak eta sektoreko administrazioen irizpideetatik ondorioztatutakoak, baina udalaren gaur egungo aurreikuspenetara egokituta.

Ingurumen dokumentu estrategikoaren arabera, udalerrriak ematen dituen aukeretara lehenengo hurbilketa bat dira hautabide horiek eta, gainera, osotara hausnartu gabeko hurbilketa partzial bat dira. Nolanahi ere, aurrerapen dokumentuan aztertuko dira, eta beste proposamen batzuk egin eta okupazio eredu orokorrak proposatuko dira Zestoarako. Hori zehazteko, herritarrek parte hartzeko aurreikusita dauden neurriak garatu beharko dira, halaber.

Hauek dira aurrerapenaren atariko agirian jasotako hautabideak, gaika:

- **Lurralde eta hiri eredua.** Bi dira: *Bedua landagunearen mugaketa* (BE-LG 01) eta *Ibañarrieta landagunearen mugaketa* (IB-LG 02). Indarrean diren Arau Subsidiarioen ondoriozkoak dira biak.
- **Ingurune naturala eta paisaia.** Bi dira: *Osinbeltz harrobia lehengoratzea* (ZE-IN 01) eta Iraetako ibarra abeltzaintzarako eta nekazaritzarako eta/edo beste erabilera bateragarri batzuetarako erabiltzea (IR-IN 02). Nekazaritzako eta basozaintzako Lurralde Plan Sektorialeatik (LPS) ondorioztatu dira biak.
- **Komunikazioak eta mugikortasuna.** Bost dira: *Zubimusu eta Galdianoko bidea lotuko dituen errepidea eraikitzea* (ZE-KM 1), *Gipuzkoako bizikleta bideen LPSan adierazitako bidegorria garatzea* (OR-KM 02), *Zestoatik igarotzen den GI-631 errepide zatia lurperatzea* (ZE-KM 03), *Zestoako hirigunean bide berria eraikitzea ikastetxeko goiko aldetik* (ZE-KM 04) eta *Ertxinondon aparkaleku berria egitea* (ZE-KM 05).
- **Gune publikoak eta gune berdeak.** Bost eremu libre proposatu dira: *R.5 Idiazpi arean* (ZE-EL 01), *H.1 Arozena arean* (ZE-EL 02), *AB.T.1 Guardi Zahar arean* (AB-EL 05) eta bi *E.1 Hiri Termala Area Berezian* (ZE-EL 03 eta ZE-EL 04).
- **Etxebizitza.** Hauek dira:
 - Indarrean den antolamenduan aurreikusitakoak: *ZE-BI 01* (28 etxebizitza R.1 Alde Zaharra arean), *ZE-BI 02* (24 etxebizitza R.5 Idiazpi arean), *ZE-BI 03* (24 etxebizitza R.6 Idiazpi mendebaldean arean), *ZE-BI 04* (22 etxebizitza R.12. Lizarraitz arean), *AG-BI 05* (16 etxebizitza AR.1 Arroa Goikoa arean), *IR-BI 06* (3 etxebizitza IR.R.1 Beko Etxea arean), *AI-BI 07* (4 etxebizitza AZ.R.1. Aizarna areako AZ.R.1/1 Egikaritz Unitatean), *AI-BI 08* (8 etxebizitza AZ.R.1. Aizarna areako AZ.R.1/2 Egikaritz Unitatean) eta *AB-BI 09* (353 etxebizitza berri ABR.R.1 Arroa Behea arean). Hautabide horiek guztiak batuta, 482 etxebizitza berri lortuko lirarteke.
 - 2006ko aurrerapeneko proposamen berriak: *ZE-BI 10* (170-200 etxebizitza, TS Fundiciones enpresaren eremua bizitegi gune bihurtuta), *ZE-BI 11* (80-100 etxebizitza bainuetxearen eremuan, ostalaritzako erabilera bizitegi bihurtuta), *IR-BI 12* (Iraetako guneko kirol ekipamenduko lurzatietan etxebizitzak eraikitzea) eta *TX-BI 13* (familia bakarreko 8 etxebizitza atxiki Txiriboga gunean, Altzolaratz-Urdanetara doan bidean).
 - Herritarrek parte hartzeko prozesua: *ZE-BI 12* (Zestoako gunea hedatzeko aurreikusitako eremua).

Hautabidetzat proposatutako eremuen multzoan egin litezkeen garapen guztiak batuz gero, 800 etxebizitza berri baino gehiagorako lekua egongo litzateke. Hala



ere, Lurralde Antolamenduko Gidalerroetako (LAG) bizitegiak zenbatzeko metodologia berriaren arabera, 456 eta 659 etxebizitza arteko bizitegi eskaintza egin daiteke gehienez, kalkuluan erabilitako etxebizitza hutsaren parametroaren arabera. Ondorioz, HAPOa izapidetzeko hurrengo faseetan, hautabide egokienak aukeratu beharko dira aurrerapenaren atarikoan planteatutako guztien artetik.

- **Jarduera ekonomikoak.** Hiru hautabide dira:

- *AB-JE 01*: indarrean diren Arau Subsidiarioetan proposatutakoa. Garatzeko dago, eta hirugarren sektoreko erabilera eman nahi zaio, AB.T.1. Guardi Zahar areako Sansinenea Erreka industria poligonoaren osagarri gisa.
- *IR-JE 02*: Urola Kostako Lurralde Plan Partzialek (LPP) datorren proposamen bat, Iraetako ibarrean industriako eta hirugarren sektoreko erabilerak eta nekazaritzako jarduera intentsiboak batera daitezela ezartzen duena. Eremu horretarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako eta/edo horiekin bateragarriak diren erabileren bidez ustia dadila proposatzen da *IR-IN 02* hautabidean.
- *ZE-JE 03*: jarduera ekonomikoak (ostalaritzako egungo erabilera, merkataritza, bulegoak eta/edo beste batzuk) eta bizitegiak batera daitezela proposatu da. Eremu horretarako, bizitegirako soilik erabil dadila aurreikusten da *ZE-BI 11* hautabidean.

- **Ekipamenduak eta azpiegiturak.** Hauek dira:

- Indarrean den antolamenduan aurreikusitakoak: *ZE-EK 01* (natura parkea eta jolas eta aisialdiko erabilerak E.1 Hiri Termal Area Berezian), *AB-EK-KI 02* (kirol ekipamenduak AB.R.1 Arroa arean), *IR-EK-KI 03*, *IR-EK-KI 04*, *IR-EK-IK 05* eta *IR EKI-KI 06* (Iraetako 4 hautabide horiek kirol ekipamenduak dira, eta Urola Kostako LPPak eremu funtzional osorako aurreikusten duen kirol eremu handiaren barruan daude).
- 2006ko aurrerapeneko proposamen berriak: *ZE-EK-KI 07* (igerilekua ezartzea).
- Herritarrek parte hartzeko prozesua: *ZE-EK-HEZ 08* (irakaskuntzako ekipamendua D.1 Kiroldetgia arean; gaur egun antolamendutik kanpo dago, aurrez aparkalekua aurreikusi baita), *ZE-EK-KI 09* (bizikletan ibiltzeko arrapala batzuk hartuko dituen kirol ekipamendua; gaur egun berez ari zaio ematen erabilera hori) eta *ZE-EKI-KI 10* (Arozeta hotelaren igerilekua eta ingurua erabilera publikoko ekipamendutzat kalifikatzea; eremu horretan ere, bizitegi erabilerak –*ZE-BI 11*– eta erabilera mistoak –*ZE-JE 03*– aurreikusi dira hautabideetan).

Antolamenduko irizpide, helburu eta hautabide partzialen dokumentuak ez du jaso lurzoru urbanizaezinaren kategorizaziorik, baina gainjarritako baldintzatzaile hauek jaso ditu plano batzuetan: *Natura 2000 sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE)*, *Pagoetako natura parkea*, *LAGetako interes naturalistikoko guneak*, *naturgune garrantzitsuen katalogo irekia*, *interes geologikoko guneak*, *korridore ekologikoak*, *oinezko bideak*, *bizikleta bideak*, *arro bisualak*, *paisaia mugarriak*, *erraz kutsatzen diren akuiferoak dituzten eremuak*, *ura biltzeko eremuak*, *eremu higagarriak*, *onura publikoko mendiak*, *zona arkeologikoak*, *ustezko zona arkeologikoak*, *kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak*, *uholde arriskua duten eremuak*, eta *kostaldeko afekzio larroak*. Baldintzatzaile horietarako ez da zehaztu erabilera araubiderik.



2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Zestoako Udalaren eskaera jaso ondoren, ukitutako administrazioei eta interesdunei kontsulta egiteko izapidea egin zuen Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusi bezala. Fase horretan, erakunde hauei egin zitzaizkien kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketako eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- Ihobe.
- Uraren Euskal Agentzia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Bide Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoa.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Urkome.
- Iraurgi Berritzen.
- Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea.
- Aiako Udala.
- Aizarnazabalgo Udala.
- Azpeitiko Udala.
- Debako Udala.
- Errezilgo Udala.
- Zumaiako Udala.
- Eguzki Talde Ekologista.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan talde ekologista.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.

Era berean, Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus) eskuragai egon da hasierako agiria, jendeak, oro har, ingurumen alorrean egokitzen dituen ekarpenak egin ahal izateko.

Amaitu da erantzunak bidaltzeko eman den epea, eta honako hauek jaso dira:



- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du omisio batzuk hauteman dituela aurrerapenaren atarikoan kultura ondareari buruz jasotako informazioan, eta zuzendu beharko direla. *Osinbeltz harrobiko ingurumena leheneratzean, Ertxina mendiko meategiaren hondarrak berreskuratzea* proposatutako helburuari dagokionez, haien ustez, Ertxina mendiaren ingurunean proposatutako jarduketa guztietarako, xeheki aztertu beharko da zer ondorio eragingo diren mendi horretan dauden haitzuloetan, horietako batzuetan Paleolito garaiko labar artea dagoenez. Adierazi du komenigarria izan daitekeela aurrerago plan bat egiteko aukera aztertzea, Zestoako historiaurreko ondare arkeologikoa babesteko eta kontserbatzeko. Hasierako agiri estrategikoari buruz, gaineratu du gabezia handiak ikusi dituela kultura ondarearen tratamenduan, hala ingurumen inbentarioan nola ondoren, proposatutako hautabide partzialak eta kultura ondarean eragin ditzaketen kalteak aztertzean; izan ere, ez da jaso horiek kontuan hartu beharreko ingurumen faktoreen artean sartzeko aukera. Hori horrela, amaitzeko, azaldu du ingurumen azterketak xeheki aztertu beharko duela, ezinbestean, zer ondorio izan ditzakeen plan orokorrak ingurumenean. Bestalde, jarduketan eremuan labar artea duen haitzolorik badago lurpean, aztertu beharko da ea lur gainean egiten diren jarduerak arriskurik dakarten lurpeko labar artea kontserbatzeko, kontuan hartuta ingurune karstikoan daudela.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, bestalde, Eusko Jaurlaritzak onartutako lurralde planetan eta babes zibileko plan berezietan Zestoako udalerrirako jasota dauden babes zibileko arriskuen berri eman du. Hala:
 - *Uholde arriskua*. Azaldu du uholde arriskua duten eremuak identifikatu direla Arola, Arroerrika eta Goseamorru ibaietan. Halaber, nabarmendu du kontuan hartu behar dela Azkoitiko udal mugartean dagoen Ibai-Eder presa hautsiz gero gerta litekeen uraldia. Horretarako, 2017ko irailaren 12an ebazpen bidez presarako onartutako larrialdi plana kontsulta daiteke.
 - *Lurrikara arriskua*: eraikin berriak egitean, kontuan hartu beharko da Lurrikaren aurkako Eraikuntza Araua, irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartutakoa.
 - *Basoetan suteak egoteko arriskuak*: kontuan hartu beharko da zer muga eta baldintzatzaile jasotzen dituen basoetan suteak egoteko arriskuari erantzuteko Larrialdiko Babes Zibila Planifikatzeko Oinarrizko Gidalerroak.
 - *Arrisku teknologikoa*: AP-8 autobidean (oso arrisku handia) eta N-634 eta GI-631 errepideetan (arrisku txikia bietan) garraiatzen diren gai arriskutsuen ondoriozko arriskuen eraginean dago.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Hirigintzako araudiak, kategoriak ezarri, eta erabileren araubidea xedatu beharko du antolamenduko kategoria bakoitzerako, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSan ezarritakoaren arabera. Horrez gain, berariaz jaso beharko du nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko balio estrategiko handiko lurzoru urbanizaezinari lotutako mugaketa eta araudia. Era berean, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak jaso beharko ditu gainjarritako baldintzatzaile gisa. Udal-plangintza idazteko eta onartzeko izapideetan, nekazaritzaren sektoreak jasandako eragina ebaluatzeko protokoloa ezarriko da. Gainera, Nekazaritza eta Elikagaigintza



Politikaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazioak balio agrologiko handiko lurretan aurreikusitako proiektu edo jarduketa guztietan, txostena egiteko eskatu beharko zaio nekazaritzaren arloan eskumenak dituen foru organoari, jarduketak behin betiko onartu baino lehen. Lurzoru urbanizaezinetan eraikin berriak eraikitzeke baldintzei dagokienez, Nekazaritzako eta Basogintzako LPSko 11., 12. eta 13. artikuluetako araudiak beteko dira. Azkenik, ikusirik zer okupazio hartuko dituzten nekazaritzako lurzoruek proposatutako garapenen ondorioz, hertsatuki eskatu du idaztekoa den aurrerapen dokumentuan berriz planteatu daitezela proposatutako eremuak, eta, bereziki, sektorearen gainean eragin handiena dutenak (adibidez, Iraetako meandroaren garapena).

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak adierazi du ez duela ez iradokizunik ez oharrik hasierako ingurumen agiriei egiteko, eta behin betiko idazketaren zain geratuko direla.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak, bestalde, zenbait irizpide aipatu ditu, planteamendua eta baliabide naturalen babesa uztartu ahal izateko bete beharko direnak. Lurzoru urbanizaezinen antolamenduari dagokienez, aurkeztutako dokumentuak ez duenez zehazten proposamenik, besterik gabe ontzat eman du HAPOan Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak jasotako kategoriak erabiltzea. Era berean, iruditzen zaio HAPOak babes bereziko kategoria bat mugatu behar duela, eta bertan jaso behar direla natura ondarearen ikuspuntutik balio handiena duten eremuak; besteak beste, eta gutxienez, honako hauek: naturgune babestuak (Pagoetako natura parkea eta KBEa, eta Izarraitzeko eta Urola itsasadarreko KBEak), eta bertako zuhaitziak eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak. Halaber, gainjarritako baldintzatzaileen artean honako hauek jasotzea gomendatzen du: bisoi europarraren interes bereziko eremuak, mehatxupeko flora zitak dituzten laukiak, korridore ekologikoak, EAeko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren aurreproiektuan jasotako paisaiak, eta interes geologikoko guneak. Azkenik, aurrerapenaren atariko proposamenei buruz, bere ustez natura ondarearen gainean inpaktu handiena izan dezaketenak aipatu ditu, ingurumen ebaluazioan eta HAPOan bertan kontuan har daitezzen.
- URak, lehenik eta behin, aurrerapenaren atarikoan jabari publiko hidraulikoaren, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eta lotutako gune babestuen inguruan aurkeztu diren hautabideen berri eman du. Irizpide orokorrak eman ditu; izan ere, garapen proposamenetan ez da jaso antolamendu xehaturik, egon litezkeen eraginak xeheki aztertu ahal izateko moduan. Ondoren, hautabide horien uholde arriskuak aztertu ditu. Jarraian, Plan Hidrologikoko gune babestuen erregistroan dauden Zestoako udalerriko eremuak aipatu ditu, baita HAPOak horietarako jaso beharko dituen gidalerroak ere. Azkenik, Zestoako udalerrian urez hornitzeko eta saneamendurako dauden sistemen berri eman du.

Irismen txosten hau egin ondoren erantzunik jasotzen bada, lehenbailehen igorriko zaio Zestoako Udalari, HAPOa eta ingurumen azterketa estrategikoa egitean kontuan har dadin.

3.- INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK

Udalerriko lurraldearen antolamendu osoa egiteko oinarrizko tresna denez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak aukera eman beharko du, ingurumen alderdiak behar bezala jasorik, hirigintzako eta azpiegituretako jardueren ondorioz suertatzen diren



ingurumen inpaktu kaltegarriak minimizatzeko, eta udalerriko ingurumenaren kalitatea hobetzen laguntzeko.

A. HAPOaren ingurumen helburu estrategikoak, gutxienez, ingurumen helburu eta irizpide hauetan oinarritu behar dira:

- Ingurumenean egin litezkeen kalteak zuzentzea eta konpentsatzea baino, prebentzioa lehenestea, HAPOa formulatzean ingurumen alderdiak egoki kontuan harturik, eta, aldi berean, ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduketak proposatzea eta txertatzea.
- Lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan jasangarritasun energetikoaren ondoriozko baldintzak txertatzea.
- Lurzoruari erabilerak esleitzean, kontuan hartzea naturaren eta nekazaritzako baliabideen kalitatea eta kalteberatasuna, ingurumenaren kalitatea eta klima aldaketa, eta zer gaitasun duten eremu horiek aurreikusi diren erabilerak hartzeko.
- Lurzoru berria sailkatu aurretik, sailkatutako lurzoruen okupazioa agortzea.
- Lurzoru urbanizagarri berrien sailkapena egoki justifikatzea, nahikotasunean eta egokitasunean oinarrituta, eta egiaz dauden premiak asetzeko behar den lurzorua neurriak zorrotz ezartzea. Lurzoruaren artifizializazioa eta hazkunde demografikoa banantzea.
- Egin litezkeen hirigintza garapenak eta azpiegiturak kokatzea, eta hauek bermatzeko moduan antolatzea:
 - Baliabide natural baliotsuen gaineko eragina minimizatzea.
 - Ur hornikuntzako eta saneamenduko sareetara sarbidea izatea, garapen horietan zerbitzu egokia bermatzeko.
 - Eraginkortasun energetiko pasiborako baldintza egokiak izatea.
- Dentsitate ertaina edo handia eta erabilerak aniztunak eta konplexuak dituzten hirigune konpaktuak eta askotarikoak lehenestea, eta alde batera uztea dentsitate txikiko edo oso txikiko bizitegi eta industria garapen berriak, baita etxebizitza isolatu edo atxikiak ere, lurzoru, energia eta material kontsumo handiko hiri eredu sakabanatua eta lausoa indartzen baitute.
- Bigarren bizileku estentsiboaren eskaintzaren sorrera minimizatzea, eta, oro har, lurzorua kontsumoan oinarritutako ereduena. Etxebizitza hutsak bete daitezela sustatzea.
- Lehendik dauden hiri sareen optimizazio funtzionala eta birmoldaketa sustatzea, horiek birgaituz, berregituratuz nahiz zaharberrituz, eta bazterguneak berreskura daitezela bultzatzea, lurzoru eta baliabideak optimizatzeko estrategia gisa.
- Hirietan bereizketa eta sakabanaketa saihestea, erabilerak eta jarduerak egoki uztartu eta ezkon daitezela ahalbidetzeko, eta, hartara, jendea ahalik eta gutxien mugiarazteko.
- Mugikortasun zentzuzkoagoa eta jasangarriagoa sustatzea, banaketa modalean oinez ibiltzea, bizikleta eta garraio kolektiboa indartu, eta ordezkoko erregaiak erabiltzen dituzten garraiobideak susta daitezen.
- Instalazio dezentralizatuak ezartzea iturri berriztagarrietan oinarritutako energiaz hornitzeko, energiaren kudeaketa tokian-tokian eta komunitatean kudea dadila sustatuz.



- Berotegi efektuko isuriak murriztea eta, batez ere, nitrogeno oxidoen eta partikulen kutsadura, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurrien bitartez, eta energia berriztagarriak eta haien ezarpenean eta erabileran aurrera egitea erraztuko duten sistema lotuak garatuz.
- Biodibertsitatearen elementu berezien gaineko eragina saihestea (bertako landareak, mehatxupeko espezieen habitatak, eta abar), eta ondare naturalaren eta ingurumen zerbitzuak emateko gaitasunaren egoera orokorra mantentzea edo hobetzea.
- Lurzoru urbanizaezinerako antolamendu egokia ezartzea, landa ingurunea zaintzeko, oreka egokia bilatuz garapen ekonomikoaren, ekosisteman betetzen duen eginkizunaren (lehengaitz hornitzea, ingurunearen kontserbazioa...) eta ingurumenaren eta paisaiaren behar bezalako kalitatearen artean.
- Paisaiaren faktorea txertatzea plangintzan, paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua bultzatuz, Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezartzen duen bezala.
- Eraikuntza lanek, oro har, (eraikinak, egiturak, urbanizazioa) eta horien funtzionamenduak baliabideen (ura, energia eta materialak), hondakinen eta kutsatzaileen balantzean eragindako ondorio kaltegarriak murriztea, eta zikloak ixterea.
- Baliabide eta ingurune hidrikoak babestea, zaintzea eta lehengoratzea –ur kontinentalak, lurpekoak eta lur gainekoak–, eta Uren Esparru Zuzentarauko helburuak erdiesten saiatzea. Ildo horretan, uren arloko araudiak ezarritako atzerapenak eta zorguneak gordeko dira, egungo nahiz etorkizuneko isuriak behar bezala tratatzea bermatuko da, eta ez da jarduerarik egingo erraz kutsa daitezkeen akuiferoak dituzten eremuetan.

B. Zestoako HAPOa formulatzean, kontuan hartuko dira arau eta agiri hauetan dauden jasangarritasun irizpideak eta printzipioak:

- IHOBE. 2005. Hirigintza planeamenduak iraunkortasun irizpidez idazteko eskuliburua.
- EAEko Garapen Jasangarrirako Ingurumen Estrategia 2002-2020.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Esparru Programa 2020.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena (2., 5., 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikulua).
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena (3. eta 20. artikulua).
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (3. artikulua).
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa (2. artikulua), 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena (3. artikulua).



- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa (4. artikulua).
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa (6. artikulua).
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena (1. eta 2. artikulua).
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa (5. eta 6. artikulua).
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa (2. artikulua).

C. Irismen dokumentu hau egiteko, ingurumen arloko arau. hauei erreparatu zaie nagusiki, eta Zestoako HAPOa egitean ere aintzat hartu beharko dira:

Europakoak

- 92/43 (EEE) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturala eta basa fauna eta flora babesteari buruzkoa.
- 2000/60 (EE) Zuzentaraua, 2000ko urriaren 23koa, uren politikaren alorrean Europako erkidegoaren jarduketara esparrua xedatzen duena.
- 2006/118 (EE) zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, lurpeko urak kutsaduratik eta narriaduratik babesteari buruzkoa.
- 2002/49 (EE) Zuzentaraua, zaratararena.

Estatukoak

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, eta naturaren kontserbazioari buruzko gainerako estatuko araudia.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa, eta ondoren egin zaizkion aldaketak.
- 37/2003 Errege Dekretua, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatzeko akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onesten duena, eta hura garatzeko araudiak.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, honako hauen plan hidrologikoak berrikustea onartzen duena: Kantauri Mendebaldeko, Gualdalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko demarkazio hidrografikoak eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen alderdi espainiarra.



- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

Autonomiakoak

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babestekoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta natura kontserbatzeari buruzko gainerako araudi autonomikoa.
- 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 254/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Pagoetako area parke natural izendatu zuena.
- 253/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Pagoeta aldeko natur baliabideen antolamendurako planari behin betiko onarpena ematen diona.
- 218/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Pagoeta (ES2120006) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzekoa.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko eta kontserbazio neurriak onartzeko dena.
- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- 217/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Izarraitz (ES2120003) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzekoa.

Gipuzkoakoak

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako mendiena.



- 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* bisoi europarraren Kudeaketa Plana onartzen duena.



4.- INGURUMEN EBALUAZIOAREN EREMU GEOGRAFIKOA. ZESTOAKO UDAL MUGARTEKO BALIABIDE ETA EREMU AIPAGARRIAK.

Ebaluatuko den eremu geografikoak nahikoa izan beharko du planean aurreikusitako jarduerak izan ditzaketen ondorio guztiei buruz hausnartzeko; hirigintzako jarduketaz gain, arauzko zehaztapenek ingurumenean izan ditzaketen ondorioak ere aztertuko dira. Oro har, analisiak Zestoako udal mugartea hartuko du barnean, baina zenbait alderditan beharrezkoa izan daiteke udal mugarteaz haragoko lurretan ere aztertzea ondorio horiek: adibidez, paisaiaren edo baliabide hidrikoen gaineko eragina aztertzeo garaian.

Ingurumen ebaluazioa zehatzagoa izango da inpaktu handiko jarduketak aurreikusten diren eremuetan; esate baterako, hirigintzako garapenak planteatuta dauden gunetan.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan dagoen informazio bibliografikoa eta kartografikoa kontsultatu ondoren, eta beste administrazio batzuetatik jasotako erantzunak kontuan hartu eta gero, ingurumenaren aldetik interes berezia duten baliabide eta eremu hauek identifikatu dira Zestoako udal mugartean.

- A. **Pagoetako parkea eta KBEa.** Aurrerapenaren atariko agiriarekin batera bidali diren mapetan, gainjarritako baldintzatzaile hauen bitartez babes dadila proposatu da: *Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), Pagoetako natura parkea eta LAGetako interes naturalistikoko gunea.* Gainjarritako lehenengo bi baldintzatzaileek zehazten dutenez erabileren araudia, komenigarria izango litzateke hirugarrena ezabatzea, gainjarritako baldintzatzaile gehiegi egon ez daitezen.

Berariazko antolamendu eta kudeaketa tresnek antolatuko dituzte eremu horiek: hain zuzen, 1998ko 253 eta 254 dekretuek, eremua parke natural izendatu eta antolamendu plana onartzen dutenek, eta 218/2012 Dekretuak, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duenak. Aurrerapenaren atarikoan proposatutako hautabideen artean, TX-BI 13 izenekoa aurki daiteke; Pagoetako parkearen aldirietan, Altzolaratz ubidearen bazterrean, familia bakarreko 8 etxebizitza atxiki eraikitzea proposatzen du. Hautabide hori gauzatuko bada, kontuan hartu beharko da zer ezartzen duen Pagoetako natura parkearen natur baliabideak antolatzeko planak 5.1.2 artikuluan; hau da, eraikin berriek 30 m-ko babes tarte bat utzi beharko dutela Altzolaratz ubidera arte.

- B. **Izarraitzeko Kontserbazio Bereziko Eremua.** Aurrerapenaren atariko agiriarekin batera doazen mapetan, *Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE)* gainjarritako baldintzatzailearen bitartez babes dadila proposatu da. Berariazko antolamendu eta kudeaketa tresnak antolatuko du eremu hori: hain zuzen, 217/2012 Dekretuak, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duenak.

- C. **Urolaren itsasadarra.** Bi tresnek babesten dute: batetik, Natura 2000 sareko Kontserbazio Bereziko Eremua da, eta Hezeguneen LPSan II. taldean sartuta dago. Horrez gain, *Hezeguneen Inbentario Nazionalaren eta Plan Hidrologikoko Gune Babestuen Erregistroaren* barruan dago.

Aurrerapenaren atarikoan erantsitako mapetan, gainjarritako baldintzatzaile hauen bitartez babes dadila proposatzen da: *Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE)* eta *Espazio natural garrantzitsuen katalogo irekia.* Beharrik gabekoa dirudi eremu berak babes bikoitza izatea; hortaz, gainjarritako baldintzatzaile gehiegi pilatu ez daitezen, nahikoa da lehenengoa soilik uztea (*Kontserbazio Bereziko Eremua*).



Baldintzatzaile horri dagokionez, 34/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituenak, ezartzen du erabilera araubidea. Gainera, 215/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Ereku izendatzeko eta kontserbazio neurriak onartzeko denak, osatzen ditu haren zehaztapenak. Dekretu horretan, zehazki, jarduketa hau ezartzen da Beduako gunearen ingurueterako: *Beduako penintsula padura sistemara lehengoratzea, malda eta pezoiak egokituz eta uhartetxoaren jatorrizko egoerara ekarriz.*

Bestalde, Hezeguneen LPSak ingurumen hobekuntzako eremu bat xedatzen du Beduako gunearen alboan hain justu, eta bertan ezarri beharko den erabilera araubidea zehazten du. Ildo horretan, kontuan hartu behar da, 34/2015 Dekretuko 7. arauari jarraikiz, KBEaren araudia eta Hezeguneen LPSko xedapenak aldi berean aplikatu behar direnean, babes handieneko irizpidea edo irizpide murriztaileena lehenetsi beharko dela betiere.

Aurrerapenaren atarikoarekin batera aurkeztutako hautabideen artean Beduako landagunearen mugaketa jaso da, baina ez da zehaztu hirigintzako jarduketa gehigarririk. Nolanahi ere, gune hori mugatzeko, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 29. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Horrez gain, gidalerro hauek hartu beharko dira kontuan:

- 34/2015 Dekretuaren 6.D.1 gidalerroaren arabera, lurzoru urbanizaezina ez da artifizializatuko, eta ez da lurzoru urbanizagarritzat birsailkatuko, eremu horietan dauden habitat naturalen motak eta espezieak kontserbatzen direla bermatzeko.
- Hezeguneetako LPSaren arabera, ingurumen hobekuntzako eremuetan debekatuta daude, beste erabilera batzuen artean, lehendik ere bazeuden guneetan oinarritutako hazkundeak.

D. Bertako zuhaztiak eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak.

Aurrerapenaren atarikoarekin batera aurkeztu diren mapetan, *Batasunaren intereseko habitat* gainjarritako baldintzatzailea proposatzen da Batasunaren intereseko habitat guztiak babesteko. Habitat horien babesa hedatu beharko litzateke, barnean har daitezten bertako basoetan hobekien kontserbatuta dauden masak eta unadak, kanpo utzi baitira. Era berean, HAPOak lurzoru urbanizaezina nola kategorizatuko duen jakiteko zain, komenigarria izango litzateke babes hori berma dadila, gainjarritako baldintzatzaile baten bitartez baino gehiago, LAGetan jasotako babes bereziko kategorian sartuz. Azkenik, ahaleginak egingo dira intereseko landaredia babesteko kontserbazio neurri aktiboak ezartzeko, ahal den heinean: adibidez, titulartasun pribatuko balio ekologiko handiko basoak udalaren lurzoru ondarean sartzea, edo lurraldea zaintzeko hitzarmenak egitea, basoak kontserbatzen eta heltzen direla bermatzeko.

Aurrerapenaren atariko proposamenei eta intereseko landaredian izan dezaketen inaktuari dagokienez:

- *Iraetako ibarra*. Bertan egindako jarduketa orok bermatu beharko du intereseko 91E0 habitat lehenetsia babesten dela eta hobetzeko bide ematen zaiola (osaerari eta zabalerari dagokienez).
- *Ibañarrietako landagunea* (IB-LG 02): landagune horren mugaketak barnean hartzen du Batasunaren intereseko 9340 habitataren (artadia) eremu txiki bat. Eraketa horren babesa bermatu beharko da, 92/43 (EEE) Zuzentaraua, 42/2007 Legea, 1/2014 Legegintzako Dekretua eta LAGak betez.



- *E.1 Hiri Termala Area Bereziko jarduketak.* ZE-EKI 01, ZE-EL 03 eta ZE-EI 04 hautabideetan, ekipamendua eta gune libreak ezartzeko jarduketak proposatzen dira eremu horretarako. Hein batean, harizti azidofiloak eta baso misto atlantikoak daude bertan, baita lehentasunezko 6210 habitat bat ere (larre lehor erdinaturalak eta sastraka fazeiak orkidea ugariko parajeetan). Hasiera batean, intereseko landare eraketa horien babesarekin bateragarriak izan daitezke jarduketa horiek, baina auzi hori behar bezala argitu beharko da, bai egitekoa den ingurumen azterketa estrategikoan, bai HAPOan eremu horiei buruz jasotako fitxetan.
 - *AB.T.1. Guardi Zahar areako jarduketak.* AB-JE 01 eta AB-EL 05 hautabideetan, proposatzen da jarduera ekonomikoetarako eta gune libreetarako erabiltzea eremuaren barruko AB.S.T.1 Egikaritz Unitatea. Hostozabalen baso misto bat dago zati batean, eta, azkenean hautabide horiek garatzen badira, unitatea antolatzeke garaian kontuan hartu beharko da hostozabalak babestu beharko direla.
 - *IR-BI 06 bizitegi garapenerako proposamena:* hautabide hori garatzen bada, Urola ibaiarekin muga duenez, erriberako landaredia babestuko da, jabari publiko hidraulikoko 5 metroetan gutxienez, ibaiaren funtzionaltasun ekologikoa bermatzeko. Onargarriztat jotzen da, halaber, dauden zuhaitzak (*Plantanus sp*) arian-arian bertako espezieekin ordezkatzeko; hala ere, kontuz jardun beharko da erriberako estaldurari eusteko, batez ere, aintzat harturik aurkako ibaiertza bideratuta eta landaririk gabe dagoela.
 - *Zestoako hirigunean, Urola ibaiaren bazterretan aurreikusitako jarduketak.* Jarduketa bat baino gehiago proposatu da eremu horretarako: ZE-KM 01, ZE-EL 01, ZE-BI 02, ZE-BI 11, ZE-JE 03, ZE-EL 02 eta ZE-EKI 09. Horiek guztiak antolatzean, baldin eta azken finean garatzen badira, erriberako basoa babestu eta/edo lehengoratu eta hobetuko dela bermatuko da.
- E. Hegazti nekrofagoen interes bereziko eremua eta hegazti fauna goi tentsioko aireko linea elektrikoen aurkako talkatik eta elektrokutatetik babesteko eremuak (2016ko maiatzeko 6aren agindua).** Zestoako udal mugartean, hegazti fauna babesteko bi eremu mota daude. Pagoetako parkea eta KBEa hartzen dute. Gainera, bigarren motari dagokionez, Urolaren itsasadarreraino iristen da.
- F. Bisoi europarrarentzako interes bereziko eremuak, bisoi europarraren kudeaketa plana onartzen duen 2004ko maiatzaren 12ko foru aginduaren arabera.** Narrondo eta Altzolaratz erreka agindu horretan babestutako ibai tarteetan barruan daude. Era berean, Plan Hidrologikoko Gune Babestuen Erregistroko babes bereziko eremuen barruan dago Altzolaratz erreka, hain zuzen ere, *Bisoiarentzako interes bereziko eremu* izateagatik. Gainjarritako baldintzatzaile espezifiko baten bitartez babes dadila gomendatzen da, eta hala eremu horiek nola aurreko atalekoak sar daitezke bertan.
- Aurrerapenaren atarikoan aurkeztutako hautabideei eta eremu horien gainean izan dezaketen inpaktuari dagokienez:
- *AB-BI 09 proposamena.* Eremuaren zati bat egikaritu da, eta gainerakoa garatzen ari da egun. Narrondo errekaen ertzean dago. Ahal dela, espazio libreetarako utziko dira erreka bazterrak, eta erriberan egun dagoen basoa gordetzen eta bertako ingurumena lehengoratzen dela bermatuko da.



- *TX-BI 13 proposamena*. Altzolaratz errekarekin muga duen bizitegi proposamen bat da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendaritzak emandako txostenaren zain, lurzati honetako hirigintza antolamenduak atzerapen zabala utzi beharko luke errekatik, eta ingurumena lehengoratzeko neurriak ezarri beharko lituzke bertan.

G. **Mehatxupeko flora:** 1x1 km-ko bi lauki daude, mehatxupeko flora zitak dituztenak (*Quercus suber* eta *Limonium humile*). Gainjarritako baldintzatzaile bat ezarriko da horiek babesteko.

H. **Plan Hidrologikoko Gune Babestuen Erregistroan jasotako beste eremu batzuk.** Altzolaratz errekaen burua *Ibai Erreserba Natural* izendatuta dago. Plan Hidrologikoaren 51. artikulua ezarritakoaren arabera, ibai tarte horietan ez da baimenduko bertako egoera naturala alda dezakeen jarduerarik. Era berean, errekan behera datorren hurrengo tarte *Ingurumenaren arloan interesa duen ibai tarte* da. Plan Hidrologikoaren 53. artikulua ezartzen duenez, halako tarteetan ez da egingo bertako fauna eta flora aldatzen dituen esku hartzerik.

Tarte horiek babesteko balioko duen baldintzatzaile bat gainjarriko da.

I. **Korridore ekologikoak.** Zestoako udal mugartean, Pagoeta eta Izarraitz lotzen dituen korridorea dago, eta korridore horren bi aldeetara dauden bi moteltze eremuek udal mugartearen tarte zabala hartzen dute barnean. Era berean, lotura gisa interes berezia duten hiru ibai tarte daude, Altzolaratz, Goitzibar eta Sastarrain erreketan. Azkenik, lehengoratzeko ekologikoko bi eremu daude: bata Osinbeltzeko harrobietan, eta bestea Endoia mendiaren magalean. Aurrerapenaren atarikoarekin batera aurkeztu diren mapetan, *Korridore ekologiko* gainjarritako baldintzatzailea proposatzen da Batasunaren intereseko habitat guztiak babesteko. Bertan ezarritako erabilera araubideak mugikortasun ekologikoa sustatu beharko du.

J. **Nekazaritzarako gaitasun handiko lurzoruak.** Zestoako udal mugartean badira Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSan balio estrategiko handiko lurzorutzat kategorizatutako zenbait gune. Auzo hauetan daudenak nabarmendu daitezke: Aizarna, Akoa, Endoia, Lasao, Arroia Goia eta Arroia Behea. Guztira, 310,18 hektarea dira, eta balio estrategiko handiko lurzoru horiek % 7,09 besterik ez dute hartzen Zestoako guztizko azaleran; beraz, garrantzitsua da horiek gordetzea.

HAPOak berariaz jaso beharko ditu, lurzoru urbanizaezinak kategorizatzean, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak zehaztutako balio estrategiko handiko eremuei lotutako mugaketa eta araudia. Udal antolamenduak mugaketa hori zabaldu ahal izango du LPS horretako helburu nagusietan oinarrituta. Bertan ezarritako erabilera araubidea bat etorriko da planarekin.

Aurrerapenaren atarikoan, halako lurzoruen okupazioa aurreikusten dute proposamen hauek:

- *ZE-EL 03*. Balio estrategiko handiko lurzoruaren 0,26 ha eta trantsizioko landa paisaiaren 4,83 ha beteko lituzke.
- *TX-BI 13*. Balio estrategiko handiko lurzoruaren 0,67 ha beteko lituzke.
- *IR-JE 02* (Iraetako ibarra). Balio estrategiko handiko lurzoruaren 36,89 ha eta trantsizioko landa paisaiatzat kategorizatutako lurzoruaren 10,62 ha beteko lituzke. Hautabide honek Urola Kostako LPPko proposamena hartzen du barnean; hau da, eremu honetan nekazaritzako erabilerak eta



industriako edo hirugarren sektoreko erabilerak bateratzea. Hala ere, beste hautabide batean (IR-IN 02), nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretarako eta/edo beste erabilera bateragarri batzuetarako erabiltzea aurreikusten da.

- **ZE-EK-EKI 07.** Balio estrategiko handiko lurzoruaren 0,14 ha eta trantsizioko landa paisaiaren 0,06 ha beteko ituzke.

Eremu horiek guztiak garatzen badira, Zestoako balio estrategiko handiko lurzoruen % 12,23ri eragingo zaio. Antolamenduaren hurrengo faseetan berriz hausnartu beharko litzateke aurreikusitako okupazioei buruz. Hartara, gainera, aurrerapenaren atarikoan azaldutako antolamendu helburuari jarraituko zaio: hau da, udalerrian dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako eremuak babestea. Nolanahi ere, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSko 10.e artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, nekazaritzaren sektorearen gaineko eragina ebaluatu beharko da, eta horretarako kontuan hartu beharko dira, bai nekazaritzako lurren okupazioa, bai antolamenduan jasotako proposameneren eraginpean egon litezkeen nekazaritzako ustategien gaineko inpaktua. Ingurumen azterketa estrategikoan bertan egin daiteke ebaluazio hori, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak «Planen aplikazioak eta lan eta jardueren egikaritzak nekazaritzaren sektorearen gainean izan dezakeen eraginaren ebaluazioa»ri buruz adierazitakoan oinarrituta. Gainera, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren Legeak 16. artikulua adierazten duen bezala, administrazioak balio agrologiko handiko lurretan egitekoak dituen proiektu edo jarduketak guztietan, txostena egiteko eskatu beharko zaio nekazaritzaren arloan eskumenak dituen foru organoari, behin betiko onartu baino lehen.

- K. **Paisaiaren kalitatea.** Zestoako udal mugartea Zarautz-Azpeitia eremu funtzionalaren zati da, eta eremu horrek bere Paisaiaren Katalogoa idatzi du, eta paisaiaren kalitaterako helburu batzuk finkatu ditu, bai oro har, bai paisaiaren aldetik interes berezikoak diren eremuetarako zehazki. Gainera, ekintza eta neurri berezi batzuk ere ezarri ditu. Katalogoa Urola Kostaren LPPan txertatu zuen 132/2018 Dekretuak, irailaren 18koak, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) eremu funtzionalaren lurralde plan partzialaren 2. aldaketa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa. Katalogoak 5 paisaia unitate identifikatzen ditu Zestean (Urola Kostako litorala, Urola behealdea, Pagoeta, Izarraitz eta Ernio mendilerroa), baita paisaiaren aldetik interes berezikoak diren 8 gune ere (Pagoetako natura parkea eta KBEa, Izarraitzeko KBEa, Urolaren itsasadarreko KBEa, Granada, Sastarrain-Ekain ingurua, Akoa harana, Sañu-Etumeta, eta Zestoako hiri ingurua.

Lur urbanizaezinen antolamendua zehazteko garaian, HAPOak kontuan hartu beharko ditu paisaiaren kalitaterako helburu orokorrak, paisaiaren aldetik interes berezikoak diren eremuetarako helburu bereziak, eta halako lurzoruari dagozkion neurriak eta ekintzak: adibidez, paisaiaren aldetik interes berezikoak den Akoa haranaren eremua babesteko, zaintzeko eta hobetzeko neurriak txertatzea.

Aurrerapenaren atarikoan aurkeztutako hautabideei dagokienez, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- **Arroa Bekoako jarduketak.** Gunea paisaian hobeto integratzea bilatu beharko dute.



- *Arroa Goikoako jarduketak.* Garapenik egiten bada, Paisaiaren Katalogoan jasotako irizpideen eta edukien arabera egin beharko da.
- *Zestoako hirigunean Urola ibaitik gertu dauden jarduketak.* Osinbeltz harrobia Paisaiaren Katalogoan jaso bezala lehengoratzea proposatzen du HAPOak. Azkenean ibaiaren inguruetan garapenik egiten bada, Zestoako hirigunearen fatxadaren irudia hobetzea bilatu beharko dute: Estazioko industrialdea ibaiaren paisaian berrintegratzea eta hirigunearen gainerakoarekin hobeto giltzatzea, Urolaren ibaiertzak lehengoratzea eta ibaiarekin lotutako atsedenekuak sortzea, eta abar.
- *Aizarnako hiriguneko jarduketa.* Azkenean aurrera eramaten bada aurkeztutako proposamena, Paisaiaren Katalogoko memoriaren OCP9 puntuan zehaztutako irizpideak bete beharko dira.

L. **Mendi publikoa.** Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera Pagoeta mendi deritzon mendi publikoa dago udal mugarte honetan. Pagoetako natura parkean eta KBEan sartuta dagoenez, eremu babestu horien araudira jo beharko da berau antolatzeko. Aurrerapenaren atariko planoetan, *onura publikoko mendi* gainjarritako baldintzatzailearen bitartez babestu da.

M. **Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak.** Ibilgu batek baino gehiagok zeharkatzen du Zestoako udal mugartea; horien artean, Urola ibaia da nagusia. Hauek dira ibaiadar garrantzitsuenak, iparraldetik hegoaldera: Arroaerreka edo Larraondo, Arroa Behetik eta haren industrialdetik igarotzen dena; Granadaerreka edo Altzolaratz, Zarauzko udalerriarekiko mugari jarraitu eta Aizarnazabal parean Urolara isurtzen dena; Sastarrain, Zestoako hirigunean Idiazpi inguruan isurtzen dena; eta Lasu edo Otalola ibaia, udalerria hegoaldeko doana. Horietarako guztietarako, egoera ekologiko ona lortzea eta gehiago ez narriatzea izango da HAPOak finkatu beharreko ingurumen helburua.

Ingurumen azterketa estrategikoak aztertu egin beharko du nola eragingo litzaiokeen jabari publiko hidraulikoari HAPOak azkenean planteatutako jarduketan hautabideak garatuz gero, eta neurriak proposatu beharko dira inpaktuak gutxitzeko: bai zuzenean ibilguan eragiten dutenak, bai zeharkakoak, adibidez, hondakin uren isuriak sortzearen ondoriozkoak. Ahal den neurrian, barnean hartuko dira erriberako zerrenda lehengoratzeko eta espazio libre gisa erabiltzeko proposamenak.

Jarduketek jabari publiko hidraulikoari eragingo badiote, edo haren bidez babestutako eremuetan badaude, Uraren Euskal Agentziaren (URA) nahitaezko baimena lortu beharko da.

Bestalde, erabilera publikoko zorguneak bere berezko helburua lortzeko balio beharko du; hau da, ibaiaren ekosistema eta jabari publiko hidraulikoa zaintzea eta babestea. Hortaz, ez zaio funtsezko aldaketarik egingo, oro har, eta bertan ez da betegarririk jarriko. Aurrerapenaren atarikoan, zorgune horren gainean eragina duten zenbait eremu proposatzen dira: AB-BI 09, AB-EK-KI 02, IR-BI 06, ZE-EK-KI 07, ZE-BI 11 eta TX-BI 13. Hala, bada, haietan ez da eraikiko urbanizazio elementurik; adibidez, espaloiak, hiri bideak eta bizikleta bideak. Era berean, eremu horretan ez da eraikiko ubideekin muga egiten duen azpiegitura linealik, ez lurpean ez airean: adibidez, kolektoreak, hodiak, gaseoduktoak, telekomunikazioko sareak, eta abar. Oro har, eremuan ez da baimenduko lurpeko eraikuntzarik, ezta haren gainean hegala duenik ere.



Hiri birmoldaketan bizitegi bihurtu nahi den ZE-BI 10 industrialdeari dagokionez, barnean hartu beharko du ibaiertza ahalik eta egoera naturalenera lehengoratzeko proiektu bat, eta hor kontuan hartu beharko da gaur egun dagoen horma ezponda etzanekin ordezkatzeko aukera, eta bertako erribera basoko espezieak landatzekoa.

Azkenik, lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioan, *iur gaineko uren babes*a kategorian sartu beharko dira ibilgu guztiak. Era berean, proposatutako eremuei dagozkien hirigintzako fitxetan, Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen LPSaren arabera gorde beharreko atzerapenak jaso beharko dira.

- N. **Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa eta babes zorgunea.** Aurrerapenaren atariko planoetan, Beduako gunean *Kostak* baldintzatzaile gainjarriaren bidez babesten da itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren mugaketa eta babes zorguneak barnean hartutako eremua. Haren babesari eta erabilera araubideari dagokionez, bai jabari publikoan bai babes zorgunean, arau hauek aurreikusitakoa bete beharko du HAPOak: 22/1998 Legea, uztailaren 28koa, Itsasertzena; hura garatzen duen Itsasertzen Araudi Orokorra (876/2014 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa), eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 45. eta 46. artikulua.

Ildo horretan, babes zorgunearen barruan dago Beduako gunea, eta bertan debekatuta daude bizitegi edo bizileku gisa erabiltzekoak diren eraikuntzak (Itsasertzen Legearen 25. artikulua eta Araudi Orokorren 46. artikulua). Gainera, Plan Hidrologikoaren 45. artikulua adierazitakoari jarraikiz, eremu horretan ez dira eraikiko urbanizazio elementuak: adibidez, espaloiak, bideak, sotoak, aparkalekuak eta garajeak.

- O. **Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko gune babestuen barruan dauden ur bilketak.** Zestoako udalerrian hainbat ur puntu daude, baina badira horniketarako erabiltzen diren bi ur bilketa (Aizbeltz eta Ezkurreta), Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko gune babestuen barruan daudenak. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak ezartzen duenez, hiri hornikuntzarako erabiltzen diren ur bilketek dagokion babes perimetroa izan behar dute inguruan, zer eremu babestu, zer kontrol neurri ezarri, lurzoruari zer erabilera eman, eta bertan zer jarduera egin behar diren mugatzeko eta, hala, bilketen kantitateari eta kalitateari kalterik ez eragiteko. Era berean, babes perimetroa mugatuta ez badago, Plan Hidrologikoak «*zaintzako eremu*» bat zehazten du 48.5 eta 48.6 artikuluetan, eta, uraren arloko administrazioak ebaluazioa aurkez dadila eskatu ahal izango du, jarduerak babestutako bilketaren gainean zer eragin izan dezakeen jakiteko, batez ere, uren kokapenari eta emariari dagokienez. Era berean, artikulua bereko 4. puntuarekin bat etorritik, aipatutako babes perimetroen barruko baimenak edo emakidak izapidetzean, dena delako horniketari buruzko txostena eskatu ahal izango zaio emakidadunari.

Aurreko guztia kontuan harturik, *Ur bilketako puntuak* gainjarritako baldintzatzailearen bitartez babestuko dira ur bilketak eta haien babes perimetroak (aurrerapenaren atarikoan eraitsitako planoetan jasota dago). HAPOak zehaztu beharko du zer erabilera araubide lotuko zaion baldintzatzaile horri, ur bilketa horien kantitateari eta kalitateari kalterik ez egiteko betiere.

- P. **Akuiferoen kalteberatasuna.** Aurrerapenaren atariko planoetan, *Lurpeko urak babesteko eremuak* gainjarritako baldintzatzaileaz babes daitezela proposatzen da. Erabilera araubidea ezartzean, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak gainjarritako baldintzatzaile horretarako ezartzen dituen gidalerroei jarraituko



zaie. Kontuan hartu beharko da, halaber, aurrerapenaren atarikoan sartutako proposamenetako asko daudela *akuifero kalteberak* edo *oso kalteberak* dituzten lurzoruetan, eta hortaz, ingurumen azterketa estrategikoak zenbait neurri zuzentzaile diseinatu beharko dituela, azkenean egiten diren hirigintza ekimenetako urbanizazio eta eraikuntza prozesuetan ez dadin inpakturik eragin lurpeko uren kalitatean.

- Q. **Interes geologikoko guneak.** «*Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia*»ren barruan, «*Iraetako meandroa*» interes geologikoko gunea bereizten da Zestoan. Interes zientifiko geomorfologiko handia du; izan ere, EAeko ibaietako behe ibilguko meandro eredu onenetakoa da, eta, gainera, oso gutxi antropizatu da. Aurrerapenaren atariko planoetan, *interes geologikoko gune* gainjarritako baldintzatzailearen bitartez babes dadila proposatzen da. Eremu horri lotutako erabilera araubidea ezartzean, gidalerro batzuk txertatuko dira babesten eta zainfzen dela eta landa garapeneko planen barruan erabilera jasangarria ematen zaiola ziurtatzeko.

Hasierako agiri estrategikoak aipatutako interes geologikoko beste guneei dagokienez, kontuan hartu behar da *Erlo mendiko konplexu karstiko* izenekoa Azpeitia eta Azkoitia udalerriei dagokiela, eta ez Zestoari.

- R. **Zarata.** 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, 23. artikuluan ezartzen duena betez, HAPOko eremuaren zonakatze akustikoa egin beharko da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako gune akustikoak aintzat hartuz, eta zonakatze hori erakusten duen plano bat txertatu beharko da hirigintzako dokumentuetan. Dena dela, HAPOak xeheki antolatutako sektore edo eremuetan etorkizuneko hirigintza garapenak aurreikusten badira, inpaktu akustikoaren azterketa bat egin beharko zaie, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak 36. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- S. **Kutsatutako lurzoruak.** *Lurzorua kutsa ditzaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoru inbentarioan* eta ingurumen agirian, lurzoru kutsatua izan dezaketen 45 kokaleku identifikatzen dira Zestoan, eta aurrerapenaren atarikoan jasotako hautabideen barruan daude horietako batzuk. HAPOak *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoru inbentarioa* izeneko baldintzatzaile berezia gainjarri du aurrerapenaren atari dokumentuaren planoetan. Era berean, kutsatuta egon litezkeen lurzoruak dituzten eremuetako hirigintza fitxetan, lurzoru horiek non dauden zehaztu beharko dute fitxari erantsitako planoek eta, testuan, aipatu beharko da nahitaez bete behar direla lurzoru kutsatzea saihesteko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legean ezarritako zehaztapenak: besteak beste, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egin behar dela, halako lurzoruaren erabilera aldatzen bada.
- T. **Arrisku naturalak (uholde arriskua eta higagarritasuna).** 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurri buruzkoak, 31.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, antolatzen den eremuko arrisku naturalen mapa erantsiko zaio hasierako agirian aurkeztutako ingurumen azterketa estrategikoari. Era berean, zenbait neurri zuzentzaile ezarriko dira ingurumen azterketa estrategikoan, dauden arriskuak murrizteko edo ez handitzeko, eta proposatutako antolamenduak kontuan hartu beharko ditu ingurumen arrisku horiek erabilerak eta jarduerak arautzean.

Higadura prozesuen eraginpeko eremuei dagokienez, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak *Eremu higagarriak* baldintzatzailea gainjarrita duten



zenbait eremu bereizten ditu Zestoako udal mugartean, eta HAPOak aurrerapenaren atariko planoetan ere jaso du baldintzatzaile hori. Haien erabilera araubideak kontuan hartuko ditu Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak 56. eta 72. artikuluetan ezarritako erabilera gidalerroak.

Uholde arriskuei dagokienez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko 2015-2021 aldiko Planaren ARSIP ZUMAIA (ES017-GIP-URO 01) barruan dago Urolaren itsasadarra.

Aurrerapenaren atariko planoetan, *Uholde arriskua duten eremuak* baldintzatzaile gainjarria xedatzen du HAPOak. Baldintzatzaile horri lotutako erabilerak mugatzeko, kontuan hartuko da zer ezartzen duten, batetik, *EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeako LPSaren aldaketako uholdeen prebentzioari buruzko araudi espezifikoa* (449/2013 Dekretuak onartu zuen aldaketa hori), eta, bestetik, *1/2016 Errege Dekretuak, urtarrilaren 8koak, zenbait plan hidrologiko berrikustea onartzen duenak, besteak beste, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren alderdi espainiarra*.

Aurrerapenaren atarikoan proposatutako hautabideak berrikusi ondoren, eta aintzat harturik zer azaldu duen URAK aurretiaz egin zaizkion kontsultei erantzutean, honako hauetan uholde arriskuak daudela egiaztatu da:

a) *Arrisku handieneko eremuetan dauden guneak (100 urtean behingo uraldia)*

- *Iraetako ibarra*: IR-JE 02 hautabidea 100 urtean behingo uraldiaren eraginpean dago hein handi batean, eta landa lurzorua da. Plan Hidrologikoaren 40.5 artikulua aplikatuko zaio; izan ere, uholde arriskua duen landa eremua denez, urpean gera litezkeen ertzen babes naturalistikoa eta ekologikoa izan behar da lurralde antolamenduen helburu nagusia.
- *Iraeta auzoko beste jarduketak*. Bizitegiatarako hautabideen artean, IR-BI 06 arriskupean geratzen da. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko 40.4 artikulua aplikatuko zaio. Ez dakigu non kokatuko diren 3 etxebizitza berriak, baina, nolana ere, 500 urtean behingo uraldiaren kotaren gainetik ezarri beharko da bizitegi erabilera.

Era berean, eragina du kirol ekipamenduen IR-EK-KI 03 eta IR-EKI-KI 04 hautabideetan. Lehena ez dago urbanizatuta, eta baratze pribatu gisa erabiltzen da. Eraikinak ibilgura arte gorde beharreko atzerapenak ere baldintzatu dezake haien garapena (LPSaren F.3 epigrafea). Biei ala biei Plan Hidrologikoaren 40.4 artikulua aplikatuko zaie. Ez da onartuko bertan funtsezko azpiegitura publikoak ezartzea –adibidez, ikastetxeak edo osasun zentroak– uholde larrien ondoriozko estualdietan irisgarriak direla ziurtatu behar baita.

- *Zestoako hiriguneko jarduketak*. Industria lurzoru zaharkitua eraldatu eta bizitegirako lurzoru bihurtzeko proposamena (ZE-BI 10) 100 eta 500 urtean behingo uraldien eraginpean dago. Plan Hidrologikoaren 40.4 artikulua aplikatuko da eta, hortaz, 500 urtean behingo uraldiaren kotaren gainetik ezarri beharko da bizitegi erabilera.

Era berean, 100 urtean behingo uraldiaren arriskupean dago kirol ekipamenduko ZE-EKI 09 proposameneko lursailaren zati handi bat. Landa lurzorua da, eta egun jendeak bizikletan ibiltzeko arrapala batzuk ezarri ditu



bertan bere kabuz. Horregatik, araudiaren 40.5 artikulua aplikatu beharko da bertan; alegia, nagusiki, ez da egingo oraingo lur arrasa aldatzen eta urak husteko gaitasuna nabarmen murriztuko duen betelanik.

- b) *Uraldietarako 500 urteko errepikatze denboran soilik kokatutako eremuak.* Bizitegi erabilerak uraldi kota horren gainetik geratu beharko dira, eta, betegarririk planteatzen bada, ezingo dute oraingo arrasa aldatu, ezta urak husteko gaitasuna nabarmen murriztu ere (Plan Hidrologikoaren 40.4 artikulua). Eremu hauek dira:
- *Txiriboga auzoko jarduketa.* Auzo honetan egindako bizitegi proposamena (TX-BI 13) 500 urtean behingo uraldia duen eremu batean dago, eta ibilgutik gertuagoko lurretan 100 urtean behingo uraldiak ukitzen du.
 - *Iraeta auzoko jarduketa.* IR-BI 12 bizitegi proposamenaren hirigintza fitxak azpiatal honen hasieran adierazi den baldintzatzailea jaso beharko du. Gainera, ez da onartuko bertan ezartzea funtsezko azpiegitura publikorik, uholde larrien ondoriozko estualdietan irisgarriak direla ziurtatu behar bada.
 - *Zestoako hiriguneko jarduketak.* ZE-BI 02 eta ZE-BI 03 proposamenei eragiten die, baita igerilekua ezartzeko proposamenari ere (ZE-EKI 07).

Garapenen bat egin eta kokatzen bada uholde arriskua duten eremuetan, aipatutako araudi aplikagarria jaso beharko da haien hirigintza fitxetan.

5.- LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Lurzoru urbanizaezina antolatzean, naturako eta nekazaritzako baliabideen erabilera jasangarria bermatu behar du HAPOak, eta babes egokia eman behar die haien osagai baliotsuenei eta/edo kalteberenei. Udalerriko lurzoru urbanizaezin guztietarako erabilerak eta jarduerak arautuz egin beharko da antolamendu hori, eta Lurralde Antolamenduko Gidalerroetan eta Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean zehaztutako antolamendu kategoriak esleitu beharko dira.

Lurzoru urbanizaezinak kategorizatzeke, eremu bakoitzaren ezaugarrietan, edukieran, eta bertako baliabide naturalen kalteberatasunean eta balioan oinarrituko beharko da. Antolamendu horrek kontuan hartu beharko ditu txosten honetako 4. atalean aipatutako alderdiak (*Babes berezia* eta *Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako balio estrategiko handia* kategoriak ezartzea, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren arabera), eta, arautzean, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizean ezartzen dituen erabilerei erreparatuko zaie.

Gainera, lurzoru urbanizaezinean onar daitezkeen jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak finkatu beharko dira, dela HAPOan bertan araupetuz, dela alderdi hori arautzeko ordenantza bereziak eginez eta onartuz. Besteak beste, alderdi hauek garatuko dira: hondakin urak egoki biltzea eta tratatzea, narriatutako lanak eta eremuak paisaian lehengoratzea, pistak irekitzea, egiturak paisaian txertatzea, heskaiak kontserbatzea, eta landagune eta naturgunean ingurumen hobekuntzak egiteko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.



6.- HIRI LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA ANTOLATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Txosten honen 3. atalean aipatutako helburuekin eta irizpideekin bat etorritik, hiriguneak antolatzean eta sektore urbanizagarri berriak mugatzean eta antolatzean, halakorik egiten bada, kontuan hartuko dira gomendio hauek:

- A. HAPOan aurreikusitako hirigintzako jarduketak egikaritzeko, proportziozkotasun irizpideei jarraituko zaie, eta unean-unean egiaz dauden beharretara egokituko dira lanak, lurzoru gehiegi erabili eta bigarren etxebizitza sustatu gabe.
- B. Eraikinen jasangarritasuna eta bizitegi eremuen ingurumen kalitatea bermatuko dira, eraikuntzako eta hirigintzako ordenantzen bitartez nahiz eremu eta sektore horien hirigintza fitxetako antolamendu xehatuaren bitartez, helburu hauek lortzeko irizpideak eta baldintzak sarturik:
 - Hiriguneak eta gune urbanizagarriak arrisku naturalen pean ez egotea.
 - 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, zaratari dagokionez ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzea.
 - 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, ezarritako helburuak, irizpideak eta zehaztapenak betetzea, eta, batez ere, 7.5 artikuluan jasotakoak.
 - Hiriko eraikin eta azpiegitura berriak bisualki eta estetikoki integratzea, eta Zarautz-Azpeitia eremu funtzionaleko Paisaiaren Katalogoan aurreikusitako helburuak, irizpideak eta neurriak betetzea, Zestoako udal mugarteko paisaiaren kalitateari eusteko.
- C. Eremu eta sektore bakoitzeko hirigintza arau berezietan, zerrenda batean jasoko da zer ingurumen baldintza onartu beharko diren, nahitaez, antolamendu xehatua eta urbanizatzeko proiektuak egitean. Bestek beste, barnean hartuko dira hirigintzako egikaritzan ezarri beharreko neurri babesgarriak eta zuzentzaileak, baita, hala badagokio, urbanizatzeko gastu gisa onartu beharreko konpentsazio neurriak ere.

7.- INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

HAPOa osatuko duten ataletako bat izango da Zestoako Udalak egin beharreko ingurumen azterketa estrategikoa, eta bertan identifikatuko, deskribatuko eta ebaluatuko da zer ondorio esanguratsu eragingo liratekeen ingurumenean, baldin eta plana eta zentzuzko hautabideak (hau da, teknikaren eta ingurumenaren arloan bideragarriak direnak) ezartzen badira, horrek ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko eta minimizatzeke eta ingurumenaren eta jasangarritasunaren onerako ekintzak planteatzeko.

Ingurumen azterketa estrategikoak barnean hartu beharko ditu, gutxienez, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren



prozedura arautzen duenak, II. eranskinean ingurumen jasangarritasuneko txostenei buruz jasotako edukia.

Eranskin horietan zehaztutako atalak garatzean, txosten honetan adierazitako alderdiei ez ezik, administrazioek, erakundeek eta interesdunek alegazioetan adierazitako ingurumen arazoei ere heldu beharko zaie, eta jarraian adieraziko diren hauek ere jorratu beharko dira:

7.1 Plan edo programaren edukia eta helburu nagusiak, labur-labur, eta beste plan eta programa batzuekiko lotura.

Ingurumen azterketa estrategikoan, labur-labur aurkeztu beharko da HAPOaren edukia (edo hartara igorri beharko da), eta bertan deskribatuko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jarduketak eta zehaztapenak, kontuan hartutako gainerako hautabideekin batera. Horrekin batera azalduko da nola planifikatuko diren jarduketak, denboraren aldetik, eta zer garapen tresna aurreikusten diren planean mugatutako eremuen plangintza xehatua egiteko.

Bestalde, aztertu beharko da zer lotura dituen HAPOak, bai hirigintzako antolamenduko beste tresna batzuekin, bai HAPOarekin lotura izan dezaketen lurralde planekin eta plan sektorialekin. Gutxienez hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), eta bizitegi kuantifikazioari dagokionez egindako aldaketa.
- Zarautz-Azpeitiko Lurralde Plan Partziala (Urola Kosta).
- EAEko Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa Eskuratzeko Lurralde Plan Partziala.
- Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (Kantauriko isurialdea), eta haren 1. aldaketa.
- Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
- Kostaldea Antolatzeko eta Babesteko Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2015-2021.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana 2015-2021.
- Pagoetako Natur Baliabideak Antolatzeko Plana.
- Urola eta Izarraitzeko itsasadarreko KBEak izendatzeko dekretuak.
- EAEko Ingurumenaren Esparru Programa 2020.
- Gipuzkoako Energiaren Foru Plana eta Euskadiko Estrategia Energetikoa.
- Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako EAEko eta Gipuzkoako Estrategiak.

HAPOko helburuak eta jarduketak eta eremuan eragina duten planetako eta programetako helburuak eta zehaztapenak bat datozen begiratu, eta elkarrekin zer erlazio duten zehaztuko da. Baterako helburuak lortzea izango da xedea, eta horrez gain, HAPOko jarduketa hautabideak ebaluatzea, baldin eta beste plan batzuetako helburuekiko eta jarduketa ildoekiko gainjartzeak, gatazkak edo



bateraezintasunak badaude. Orobat identifikatuko dira bigarren mailako ondorioak, ondorio metakorrak, eta ukitutako eremuan ezarriko diren beste planekiko sinergiazkoak. Halako ondoriorik identifikatzen bada, planaren inpaktuak zehazteko eta aztertzeke atalean ebaluatuko dira.

Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSari dagokionez, bereziki, HAPOaren idazleek kontuan hartu beharko dute, iurzoru urbanizaezina kategorizatzeke (aurrerapenaren atarikoan hari buruzko proposamenik aurkeztu ez bada), planean jasotako kategoriak erabili beharko direla LAGek zehaztutako babes bereziko kategoriaz gain.

7.2 Nazioarteko, Europar Batasuneko, estatuko, autonomiako, foruko eta tokiko esparruetan ingurumena babesteko finkatutako helburuak, eta plana egitean horiek kontuan hartzeke moduari buruzko justifikazioa.

Ingurumen ebaluazio estrategikoak azaldu beharko du nola txertatu diren udal antolamenduan irismen dokumentu honetako 3. atalak ingurumen babesaren eta jasangarritasunaren inguruan adierazitako irizpideak, edo HAPOa formulatzean ezarritako beste batzuk, eta, ahal den guztietan, ezarritako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko ditu.

7.3 Zestoako udalerraren ingurumena eta haren bilakaera ezaugarritzea, klima aldaketa kontuan harturik.

Aurkeztutako hasierako agiriak jadanik azaltzen duen informazioan oinarrituta, eta irismen agiri honetako 4. atalean ezarritako irizpideak kontuan harturik, Zestoako udalerraren ingurumen ezaugarriak deskribatu beharko dira ingurumen azterketa estrategikoan, eta egun duen egoeraren diagnostiko osoa ere egin beharko da. Horretarako, egin beharreke azterketa bereziak egingo dira, zer informazio iturri eta bibliografia kontsultatu diren, zer landa lan egin den eta zer metodologia erabili diren adierazita.

Diagnostikoan, nekazaritza, natura eta paisaia baliabideak zer egoeratan dauden eta hiri, industria eta landa guneetako ingurumenaren kalitatea nolako den deskribatuko da, eta bereziki babestu edo zaindu behar diren elementuak eta/edo baliabideak zein diren identifikatuko da.

Atal horretan, gainera, udalerrak ingurumenaren arloan dituen presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOan zer eragin izango duten edo planak arazo horiek larrituko dituen begiratzeko.

Deskribapenean ez dira ingurune fisikoaren ezaugarriak soilik adieraziko; planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitekeen alderdirik edo aldagairik bada hiriko metabolismoan, horren berri eman beharko da: adibidez, uraren horniketa eta saneamendu sistemak, mugikortasun sistema (garraio publikoa/pribatua, motorduna / motorrik gabea), zarata mailak, eta abar aldatzen badira.

Udalerraren egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, zer-nolako bilakaera izango duen aurreikusiko da; horretarako, kontuan hartuko dira ingurumenean eragina izan dezaketen joera sozioekonomikoak eta espero den klima aldaketa. Azken alderdi horri dagokionez, komeni da udalerrian klima



aldaketarekin lotuta dauden inpaktu gertagarrienak identifikatzea, eta hartara egokitzeko lehentasunezko jarduera eremuak zein diren zehaztea.

Zestoako ingurumen ezaugarri orokorrak deskribatu ondoren, xehetasun handiagor ezaugarrituko dira HAPOaren arabera jarduketa garrantzitsuenak edo bortitzenak hartuko dituzten aldeak edo kokalekuak: adibidez, hiri garapenak egitea aurreikusten diren eremuak.

Era berean, 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 31.1 artikuluan gai horri buruz zehazten duena betez, analisi bat egin beharko da lurzoruek aurreikuspen horiek hartzeko zer gaitasun duten jakiteko, beste alderdi batzuen artean hauek kontuan harturik: uraren arloko administrazioak jabari publiko hidraulikoa eta itsaso eta lehorraren arteko jabaria babesteari buruz prestatu duen informazioa; horniketa eta saneamendu sarea kudeatzen duen erakundeak emandako informazioa, eskari berriak asetzeko adina baliabide hidrikorik eta isuri berriak tratatzeko gaitasunik dagoen azaltzeko; errepideen eta lehendik dauden beste azpiegituren arloan eskumenak dituzten administrazioen txostena, planean jasotako aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa; eta abar.

Oinarri gisa, azkenean jorratzen dituen alderdi guztiei buruzko kartografia tematikoa erantsi beharko zaio atal horri, eskala egokian.

7.4 Hautabideak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Aukeratutako konponbidearen justifikazioa.

Ingurumen azterketa estrategikoan, ingurumen azterketa egin behar zaie HAPOaren helburuak lortzeko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren zenbait hautabideri. Kontuan hartutako hautabide bakoitzaren ingurumen inpaktuak ebaluatuko dira, eta planaren helburuak eta, bereziki, ingurumen helburuak zenbateraino betetzen dituen erabakiko da.

Beraz, aztergai den eremuko ingurumenaren elementuak eta arazoak eta ingurumena babesteko helburuak identifikatu ondoren, teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren zenbait hautabide proposatu beharko dira HAPOa garatzeko eta jasotzen dituen helburuak betetzeko, eta haien artean sartu beharko da, nahitaez, «0 hautabidea» edo esku hartzerik gabekoa; hau da, udalerraren egiturazko antolamendua ez aldatzea. Ahal dela, hirigintzako jarduketan delineaizio edo diseinu aukerak eta har ditzaketen kokapenak alderatuko dira.

Aurrerapenaren atarikoan jasotako planteamenduak kontuan harturik, hautabideen azterketa egitean analisi zehatu hauek hartu beharko dira barnean:

- **Bizitegirako garapen berriak kokatzeko hautabideak.** Lehenik eta behin, udalerriak HAPOaren indarraldian (8 urte) zenbat etxebizitza beharko dituen zehaztu beharko da, eta egindako zenbaketa justifikatu beharko da, parametro sozialetan, demografikoetan eta ingurumenekoetan oinarrituta, eta, jakina, lurralde plangintzak zenbaketa horri dagokionez ezarritako mugen barruan betiere. Bizitegirako gaitasuna zehaztu ondoren, eta kontuan harturik zer gidalerro sartu diren txosten honen 4. atalean aurrerapenaren atarikoko hautabideei buruz, analisia egingo zaie azkenean bizitegiak kokatzeko eta garatzeko sakonago aztertzea erabaki diren aukerei. Azterketa horrek kontuan



hartu beharko du zer inpaktu izango duen ingurumenean aztertutako etxebizitzaren kokapen eta tipologia aukera bakoitzak eta, hala, bazter utzi ahal izango dira ingurumeneko elementu baliotsuetan (adibidez, gune babestuetan) inpaktu nabarmenak eragiten dituztenak, edo, uholde arriskua tarteko, pertsoneri edo ondasunei kalte egiteko arriskua handitzen dutenak.

- **Jarduera ekonomikoetarako eta ekipamenduetarako lurzoruaen hautabideak.** Udalerrian jarduera ekonomikoetarako eta ekipamenduetarako zenbat lurzoru behar den zehaztu beharko du analisiak. Behar horiek zehaztu ondoren, eta kontuan harturik zer gidalerro sartu diren txosten honen 4. atalean aurrerapenaren ataririkoko hautabideei buruz, analisia egingo zaie azkenean jarduera ekonomikoak eta ekipamenduak kokatzeko eta banatzeko sakonago aztertzea erabaki diren aukerei. Jasangarritasun irizpideei jarraikiz egingo da beti analisi hori, eta bazter utziko dira ingurumeneko elementu baliotsuetan (adibidez, balio estrategiko handiko nekazaritzako lurzoruetan edo gune babestuetan) inpaktu nabarmenak eragiten dituztenak, edo, uholde arriskua tarteko, pertsoneri edo ondasunei kalte egiteko arriskua handitzen dutenak.

Hautabideen analisiak egitean, jadanik urbanizatutako eremuak finkatzea eta berritzea lehenetsiko da hauteman diren premiei erantzuteko; izan ere, hobeto egokitzen zaie ingurumeneko eta jasangarritasuneko irizpideei, oraingoz lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako eremuak garatzearen aldean; bereziki, balio estrategiko handiko nekazaritzako lurzoruetan (Iraetako ibarra), edo gune babestuetan edo haietatik gertu daudenetan (Pagoetako parkea eta KBEa, eta Urola eta Izarraitz itsasadarretako KBEa) garatzekoak badira.

Halaber, hautabideak aztertzean, proposatutako hirigintza eremuetako erabileren barne banaketari erreparatuko zaio:

- Ingurumen arriskuak kontuan hartzeko (adibidez, URAk aurreko kontsultei erantzutean aipatutako uholde arriskuak).
- Batasunaren intereseko habitaten gaineko eragina minimizatzeko (esaterako, erriberako landaredian), eta jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak lehengoratzearen alde egiteko.

Nolanahi ere, hautabideen analisiak argi azaldu beharko du zer metodologia erabili den, eta, egin beharko den irizpide anitzeko analisi horretan, zenbateraino hartu diren kontuan ingurumen faktoreak eta faktore tekniko, funtzional eta ekonomikoak. Aztertutako alderdi bakoitzean, azkenean aukeratutako hautabidea ez badator bat ingurumenaren aldetik balorazio hoberena duenarekin, aukera hori zergatik egin den azaldu beharko da.

Proposatutako hautabideen kokapena eta ezaugarriak jasotzen dituzten agiri kartografikoak erantsiko dira.

7.5 HAPOaren zehaztapenek eta jarduketek ingurumenean izango duten eragin nabarmenak identifikatzea eta aztertzea.

HAPOan aurreikusitako jarduketek inguruko elementuetan zer eragin izango duten identifikatu eta aztertuko da. Besteak beste, elementu hauek hartuko dira barnean:

- Gune babestuak.
- Habitat eta espezie urriak eta/edo interesekoak; adibidez, bisoi europarra.



- Nekazaritzarako balio estrategiko handiko lurzorua eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak.
- Uren araudiaren arabera babestutako ur masak eta eremuak.
- Paisaia.
- Hirigunearen kalitatea, zarataren, trafikoaren eta gisako alderdiei dagokienez.
- Giza osasuna.
- Monumentuzko eta arkeologiako ondarea. Alderdi horretan, aintzat hartuko da zer ohar egin dituen Kultura Ondarearen Zuzendaritzak aurretiazko kontsultei erantzutean.

Gainera, zenbatetsi beharko da zenbateraino eragingo duten HAPOko planteamenduek:

- Mugikortasun eskarian.
- Uraren, energiaren eta antzeko baliabideen kontsumoan. Ildo horretan, garapen berriek ekarriko duten ur eskaria zenbatetsi beharko da, eta Gipuzkoako Urak (Gipuzkoako Ur Partzuergoa) erakundearen txostena lortu, dauden hornikuntza azpiegiturak premia berriei zerbitzu emateko aski direla ziurtatzeko. Jasangarritasun energetikoaren azterketa bat ere jasoko da, 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, 7. artikulua jasotakoa betez, eta lege horretan ezarritako baldintzetan.
- Kutsatzaileak isurtzea eta hondakinak sortzea. Alderdi horretan, URAk egin duen txostena ikusi ondoren, Gipuzkoako Urak partzuergoak ziurtatu beharko du oraingo saneamendu azpiegitura aski dela azkenean Zestoako eta Iraetako guneetan egingo diren garapenei zerbitzu emateko. Aizarna auzoko etxebizitzaren aurreikuspenei dagokienez, azkenean egingo badira, udalak frogatu egin beharko du egungo saneamendu sistema gai dela proposatutako garapenak ekar ditzakeen isuri berriak biltzeko eta arazteko eta, ez bada, egon litezkeen arazoei konponbidea emateko beharrezko diren aurreikuspenak aurreratu beharko ditu.

Inpaktuak aztertzean, ondorio guztiak hartu beharko dira barnean: bigarren mailakoak, metakorrak, sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerakoak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, onuragarriak eta kaltegarriak.

Gainera, ez dira antolatuta den eremuaren eraldaketa fisikoak zuzenean eragindako inpaktuak soilik aztertuko; kontuan hartuko dira, halaber, proposatutako antolamenduak edo erabileren eta jardueren araubideak zeharka sortzen dituzten ingurumen inpaktuak.

Hautemandako inpaktuen adierazgarritasuna zehazteko, dokumentu hauek ezarritakoari jarraitzen saiatu behar da: 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioarenak, III. eranskinean, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, III. eranskinean.

Identifikatutako inpaktuetako bakoitzaren magnitudea eta intentsitatea ezaugarrituko eta balioetsiko da, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskineko 8. atalean adierazitako terminologiaren arabera. Horretarako, aurrez zehaztuko dira inpaktuaren eragina egoki



deskribatuko duten adierazleak (adierazgarriak, nabarmenak, baztertzailleak, zenbakarriak eta identifikatzeko errazak), eta inpaktuaren gutxieneko muga onargarriak finkatuko dituzten ingurumen kalitateko helburuak, indarrean dagoen legeria eta, kasuan-kasuan, eskumena duten organoetako gidalerroak harturik erreferentzia gisa.

Era berean, balorazio horrek ezarriko ditu, hala badagokio, zein jarduketa ez diren bateragarriak lurraldearen, hirigintzaren eta ingurumenaren arloan indarrean den plangintzarekin, edo zeinek sortzen dituzten ingurumen inpaktu larriak edo onartezinak. Bietan ala bietan, hala izanez gero, aldatzea edo ezabatu egingo dira jarduketa horiek.

Azkenik, inpaktuen ebaluazioa ondorengo beste fase batzuetara atzeratzen bada, egokiagoa delakoan, zergatik arrazoituko da.

7.6 Ingurumen integrazioko neurriak

HAPOan aurreikusitako jarduketek ingurumenean inpaktu adierazgarriak izango dituztela erabaki bada, ingurumen txosten estrategikoak zenbait neurri zehaztuko ditu, horietako bakoitza prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den heinean, arintzeko.

Era berean, HAPOan ingurumen alderdiak txertatzen badira, ez dira balizko inpaktu bati erantzuteko neurriak soilik ezarri behar: komeni da horiek beste neurri batzuekin osatzea, udalerriko ingurumen arazoak konpontzen eta ingurumenaren kalitatea hobetzen lagundu dezaten.

Hori horrela, honelako neurriak ezarriz eraman beharko da aurrera Zestoako HAPOko ingurumen integrazioa:

- Lurralde plangintza eta hiriaren diseinua egitean, ingurumen alderdiak kontuan hartzea eta jasotzea, arazoak edo inpaktuak prebenitzeko edo aurrez zeudenak zuzentzeko. Ez du berariazko aurrekonturik behar izaten. Besteak beste, adibide hauek jar daitezke: balio naturalen babes egokia bermatuko duen antolamendua zehaztea lurzoru urbanizaezinerako; inpaktua eragin dezaketen jarduerak arautzeko ordenantzak ematea; kalteberak ez diren kokalekuak bilatzea garapen berrietarako; portaera energetikoa hobetzeko eta eguzki argia gehiago aprobetxatzeko orientatzea eraikinak; eta abar.
- HAPOaren zehaztapenak garatuko dituzten planetako eta proiektuetako ingurumen inpaktu kaltegarriak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak; horien artean, klima aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Neurri horiek egikaritzea proiektuen osagaitzat hartuko dira, eta, beraz, aurrekontuetan jaso beharko dira. Haietako asko garapenaren planarekin edo proiektuarekin batera zehaztu beharko dira, baina, nolahi ere, HAPOan identifikatu beharko dira, eta haien gutxieneko ezaugarriak zehazteaz gain, garapeneko planetan eta proiektuetan nahitaez txertatu behar direla adierazi beharko da. Aztertu beharreko neurrien artean, eta kontuan harturik zer gidalerro ezarri dituen URAk aurreko kontsultei emandako erantzunetan, bai garapen berrien bai egungo etxebizitzaren isuriak arazteko aukera emango duen konponbide bat jaso beharko da Arroa Goikoa auzoko saneamendurako. Saneamendu sistema orokorrarekin konektatuta egotea hobesten da, eta hala egin ezin bada, behar bezala arrazoitu beharko da zergatia.
- Azkenean egiaz kapital naturala galarazten bada, galerak konpentsatzeko neurriak, galerak halabeharrezkoak direla ebaluatu bada. Antolamendurako tresnan, hauek zehaztu behar dira:



- Non konpentsatuko den, eta horretarako azterlan bat egin beharko da aurretik, berreskuratzea komeni den eremu narriatuetan, bertako korridoreen sarean eta egon litezkeen aukeretan oinarrituta lehentasunak zehazteko.
 - Konpentsatzeko jarduketak hartuko dituzten lurak lortzean, sailkatutako lurzoruarekin lotu beharko dira; adibidez, atxikitako sistema orokor baten edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketa baten bidez.
 - Konpentsatzeko neurrien gastua sektore berria urbanizatzeko gastuen barruan sartu behar da.
 - Konpentsatzeko neurriak eraikitzeke lizentziak eman aurretik gauzatu beharko dira.
- Udalerriko ingurumenaren egoera hobetzeko jarduketak, egoera ekologikoa eta/edo paisaia lehengoratzeko nahiz ingurumen kalitatea hobetzeko: adibidez, Osinbeltz harrobia lehengoratzeko, HAPOak ingurune naturalerako eta paisaiarako proposatutako hautabideen artean proposatzen duena. Horretarako, komeni da HAPOan lehentasun hurrenkera bat identifikatzea eta zehaztea lehengoratuko diren kokapenentzat edo ingurumen egoera hobetzeko egingo diren jarduketentzat.

Ingurumen integrazioko neurriak HAPOko hirigintzako dokumentazioan jaso beharko dira, eta zer kostu ekonomiko duten zenbatetsi, nola finantzatu diren zehaztu –udal aurrekontuen kontura, dirulaguntzen bidez, beste erakunde batzuekin hitzarmenak eginez–, eta zer denboran egikaritu diren planifikatu beharko da. Azkenean, garapeneko planetan eta proiektuetan kontuan hartu beharreko neurriak zehaztuko dira.

7.7 Planak ingurumenean dituen eraginak zaintzeko programa.

Ingurumen azterketa estrategikoak barnean hartu beharko du HAPOak ingurumenean dituen eraginak zaintzeko programa bat, identifikatutako inpaktu nabarmen bakoitzaren jarraipena egiteko; neurri babesgarriak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak betetzen diren eta eraginkorrak diren egiaztatzeke; eta HAPOan zehaztutako ingurumen helburuak lortzen diren begiratu ahal izateke.

lido horretan, programak honako hauei buruzko informazioa jaso beharko du, aldian-aldian:

- Proposatutako ingurumen helburuak zenbateraino betetzen diren.
- Plana abian jarrita ingurumenari zenbaterainoko kalteak egin zaizkion.
- Prebentziozko, zuzentzeko eta, halakorik bada, konpentsatzeko neurriak aplikatu den, eraginkorrak diren, eta plana garatzeko hurrengo dokumentuetan eta egikaritza proiektuetan sartu diren.
- Ingurune jakin bateko elementuei kalte egin dien ingurumen efekturik agertu den, ustekabea, eta hala bada, zein diren.
- Sektorean eskumenak dituzten erakundeek edo administrazioek (urak, hondakina, zarata, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, errepedeak,



sailkatutako jarduerak, eta abar) dagozkion baimenetan eta udalaren esparruko baimenetan ezarritako ingurumen baldintzatzaileak betetzen diren.

Helburu horretarako, zaintza programak adierazi beharko du:

- Zer sistemari, alderdiri edo ingurumen aldagairi egin beharko zaien jarraipena.
- Jarraipenerako eta kontroierako zer jarduketa egingo diren, dagokien metodologia (datuak biltzeko estrategiak, aldizkakotasuna, eta abar) eta kronograma ere zehaztuta.
- Jarraipenerako zer adierazle erabiliko diren, dagozkien unitateak eta mugako eta/edo erreferentziako mailak ere zehaztuta. Dokumentu honetako 8. atalean iradokitako adierazleak edo egokitzat jotako beste batzuk erabili ahal izango dira.
- Zer pertsona eta/edo erakunde arduratuko diren ingurumenaren jarraipena egiteaz.
- Zer eduki jaso behar den egin beharreko txostenetan, eta zenbatean behin egin behar diren.
- Aurreikusitako aurrekontua.

7.8 Laburpen ez-teknikoa

Ingurumen azterketa estrategikoan emandako informazioaren laburpen ez-teknikoa idatzi beharko da, eta labur eta irakurle guztiek ulertzeko moduan eman beharko da informazioa.

Laburpen horretan, gutxienez, hauek azalduko dira: HAPOa egitean zer helburu lortu nahi ziren, orokorrean eta ingurumenaren aldetik; zer aukera hartu diren kontuan; zer ondorio eragiten dituen haietako bakoitzak ingurumenean, labur-labur; eta zergatik egin den, azkenean, hautatutako konponbide(ar)en alde.

Laburpena osatzeko, zer neurri zuzentzaile diseinatu diren eta herritarrek eta erakundeek parte hartzeko prozesuan zer ondorio atera diren deskribatuko da.

Halaber, alderdi nabarmengarrienen dokumentazio grafikoa ere erantsiko da.

7.9 Hautabideen eta prebentziozko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Hurbilketazko analisi ekonomiko bat gehituko da hautabideen azterketan, kostuak eta onurak aztertzeko eta analisi ekonomiko eta finantzarioa egiteko, eta barnean hartuko da, ahal den heinean, ingurumenaren eta gizartearen alorreko kanpo kostuen azterketa.

Atal honetan, halaber, HAPOa ezarrita eragin litezkeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostua zenbatetsiko da, eta/edo aurrekontu banakatua jasoko da, haren ondoriozko ingurumen kostuak barnean hartzen direla bermatzeko. Horrez gain, neurri horiek finantzatzeko iturriak ere zehaztuko dira, Zestoako udal aurrekontuen kontura zein egingo diren eta,



halakorik bada, hirigintzako proiektuen edo jarduketan sustatzaileek zein onartu beharko dituzten berezita.

8.- INGURUMEN EBALUAZIOA ETA ZAINZTA PROGRAMA EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBOEN ETA/EDO KUALITATIBOEN PROPOSAMENA

Hautabideen ingurumen ebaluazioa eta zaintza programa egiteko aukeratu diren adierazleek hainbat aldagai uztartuko dituzte, egiaztatu ahal izateko zenbateraino bete diren, batetik, HAPOak zehaztutako ingurumen helburuak, eta, bestetik, hura garatzean ingurumenaren gainean aurreikusi diren ondorioak; hala, neurri zuzentzaile gehigarriak txertatu ahal izango dira ingurumen helburuak betetzen ez badira edo alderdi horretan aldaketarik bada.

Ingurumen adierazleak:

- Finkatutako helburu eta irizpideekin lotura izan behar dute, egiaz kudeaketa tresna gisa funtzionatu ahal izan dezaten, HAPOa formulatzeko eta aplikatzeko esku hartzen duten eragileen erantzukizunak ezartzeko.
- Neurgarriak izan, eta denbora sailetan aztertu ahal izan behar dira. Denboran aldakortasuna islatu behar dute, joera kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko aztertu ahal izan daitezten.
- Kopuru murriztua izan behar dute, tartean dauden eragile guztiek ulertu ahal izan ditzaten. Horretarako, sinpleak eta interpretatzeko errazak izan behar dira.
- Eskura egon behar dute, horiek lortzeko informazio iturri ugarietara jo beharrik gabe.

Zestoako udalerraren ezaugarriak eta hasierako agirian jasotako antolamenduak kontuan hartua, erabilgarriak izan daitezke honako hauek baloratzeko adierazleak: lurzorua kontsumoa (azalera artifizializatua), nekazaritzako lurzorua eta ustiatzearen gaineko eragina (nekazaritzako ustiatzearen kopurua, balio estrategiko handiko azalera), baso moten azalera, eta intereseko beste habitat batzuk, lur gaineko uren kalitatea, eta abar.

9.- INFORMATZEKO ETA KONTSULTARAKO MODALITATEAK

HAPOko funtsezko prozeduran aurreikusitako izapideen barruan, jarduketa hauek egingo ditu Zestoako Udalak, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 21. eta 22. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 12. artikuluan informatzeko eta kontsulta egiteko modalitateei buruz ezarritakoa betez:

- a) Planaren edo programaren aurretiko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruzko kontsulta egin ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei.
- b) Planaren edo programaren aurretiko agiriaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren informazioa jendaurrean jarri, aldizkari ofizialean iragarki bat argitaratuz, eta gutxienez 45 egun utzi agiri horiek aztertzeko eta oharrak egiteko.



Aurrekoaren ondoretarako, ukituko administrazio publikotzat eta interesduntzat hartuko dira Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak irismen dokumentu hau idazteko kontsultatu dituen administrazioak, erakundeak eta pertsonak (agiri honen 2. atala), eta Udalak planaren izapidean identifikatu ahal izan dituen gainerako erakundeak eta interesdunak (ukitutako lurren jabeak, auzokoen elkarteak, eta abar).

10.- INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO INFORMAZIO ALDIAREN ONDOREN PLANEAN EGIN LITEZKEEN ALDAKETAK

Zestoako Udalak ingurumen adierazpen estrategikoa egin dezala eskatuko dio Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi (ingurumen memoria, 211/2012 Dekretuaren hitzetan), 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 24. eta 25. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 13. artikuluan ezarritakoa betez. Eskaerarekin batera, ingurumen ebaluazio estrategikoen espediente osoa aurkeztu beharko du. Honako hauez dago osatuta:

- HAPOko hirigintzako dokumentuak.
- Ingurumen azterketa estrategikoa.
- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen eta kontsultako eta jendaurreko informazioko izapideetan egin diren alegazioen kopia.
- Zestoako Udalak idatzitako laburpen bat, planaren azken proposamenean alderdi hauek nola txertatu diren azaltzeko: ingurumen alderdiak; ingurumen azterketa estrategikokoak eta irismen agiriaren arabeko egokitzapenekoak; egindako kontsulten emaitzak; eta horiek kontuan hartzeko modua.

Bestalde, kontuan hartu beharko da, aldaketak egiten badira planaren izapidean eta kontsultako eta jendaurreko informazioko izapidearen ondoren, eta ebaluatu gabeko eragin nabarmenak izan baditzakete ingurumenean edo, nolahi ere, 211/2012 Dekretuko 4. artikuluan jasotako balizko kasuetako bat gertatzen bada, udalak horren berri eman beharko diola zuzendaritza honi, planean edo programan aldatutako alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ere atxikita.

Donostia, 2019ko abuztuaren 7a

INGURUMENKO ZUZENDARITZA NAGUSIA,

Sin.: MÓNICA PEDREIRA LANCHAS

